

Bergarako astekaria

# Berrigara

## Martin

"Egin" berria sortzea helburu

## Garitano

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 2TIK URRIAREN 2RA

**ON:** Bergarako AKULU AEK euskaltegian

Informazioa eta matrikula:

Arretreka 13, behea.

943 76 05 18

izena eman

**æk**

euskaltegi eta barnetegietan!

**BAI!**  
EUSKARARI!!



# GUIPUZCOANA

*Paketeen garraio eta banaketa*

## BERGARA

**Tf.: 76 36 42**

Faxa: 943 76 54 25

San Juan auzoa z/g  
20570 Bergara



PAKETERIA ZERBITZU  
EGUNEROKOA

- Elkarre europarrera
- +
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniara eta
- Hungariara

# UGARTE

## AROSZTEGIA



### ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan 1, (Barruti). BERGARA.  
Telefona eta faxa: 943 76 54 91



# 70 urte geroago

Juan Martín Elexpuru / Idazlea

Aspaldi, oso aspaldi, Elgeta Santa Maiñako zubiraino ailegatzen zan. 1348an Oxirondo Elgetatik apartau eta Bergarara pasau zan. Kronikak diñue, hau dala-ta, demanda haundixak izan zela: burrukak, lapurretak, su-emotiak, eta hildakoren batzuk be bai.

Angiozar eta Ubera, Elgetakuak izaten jarraitu zeben ixa atzo goizera arte. 1928an pasau zien Bergarara. Orduan apenas egon zan hainbeste hasarre eta sesio.

Zaharrak diñue, gogorra zan Elgetakua izatia. Aldapiagatik batez be. Norbait hildakuan, joan hadi Elgetako puntaraino kajia bizkarrian hartuta. Edo aiuntamentura, ero medikuagana. Baina hasarrebiderik haundixenak beste gauza bategaittik sortzen zien, itxuria. Orduan be gauzak saldu eta erosteko bi auzo horrek Bergarara zeuken jokeria: esnia, berduria, zapatuetako tratu. Asteko konpria eñ eta asto-illara haundixak etortzen zien kamiñuan go-

ra. Baiña herriko mugan (San Kristobalen eta Esperantzan) Elgetako aguazilla egoten ei zan arbitriak kobratzen (orduko zergak). Astua gelditu, banastak begiratu, eta segun zenbat jenero ekartzen zan (olixua, azukarra, pattarra), hainbeste diru. Etzan diru asko izango, baina hasarretzeko nahikua.

1928. Primo de Riveraren diktadura sasoia. Ixa inor enteratzeke, Ubera eta Angiozarko jaunen batzuk, orduko errejimenakin hartuemon ona zeukena, papelak egin dittue Madrillen.

*“Zerain, Arama, Gatzaga... herri txiki asko dabil berbizten. Eta ez tie Osintxu edo Angiozar baino haundixauak. Zein ete da problemia. Burujabetasuna, beharbada?”*

Etzan egon ez botaziñoik eta ez prosoziñoik. Auzotar danak etzien egongo konforme, baiña gehixenak, itxuria, bai. Harrezkero Angiozar eta Ubera Bergarakuak die, nahiz eta Ubera elizaz —eta medikuz be bai punturarte—, Elgetakua izaten jarraitu.

70 urte pasau die. Sasoe hartan bi auzoen artian 1.000 bizilagun inguru zeuzken. Gaur ez tie 500era ailegauko. Baserritik bizitzia nekeza da oso. Asko hustu da. Familixak be, txikixauak die. Beherakada haundixa egin dabe auzo guztiak.

Hala eta be, jente asko dago, bai auzotarrak, bai kanpokuak, auzuan gustora biziko lirakenak. Baina etxiak eitteko orduan dana da problemia. Herrixai be, egixa esan, urrin jausten jako auzoko kontuak.

Zerain, Arama, Gatzaga... herri txiki asko dabil berbizten. Eta ez tie Osintxu edo Angiozar baino haundixauak. Zein ete da problemia. Burujabetasuna, Biharbada? B

barruan



## Itziar Rico

Anbulatorioko medikua

*“Medikamentazoak gehiegizko oihartzuna izan du komunikabideetan; asko puztu da”*

8. orrialdean.



## Carlos Arnaiz

BKEko presidentea

*“Zoritxarrez, BKEren egoera ekonomikoa oso larria da une honetan”*

22. orrialdean.



## Josean Azkarate

Novedades zinekoa

*“Abenturazko filmek gustatzen zaizkit gehien, Spielberg-enak batez ere”*

29. orrialdean.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1978.** Irailaren 4tik 9ra, Euskaltzaindiaren VIII. biltzarra izan zen Bergaran. Biltzar hartan finkatu ziren euskara batuaren oinarriak eta, ondorioz, batuaren kontrakoei Euskarazaintza Erri Akademia sortu zuten.

**1839.** Abuztuaren 31n Bergarako besarkadak amaiera eman zion lehen karlistadari.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1918.** Irailaren 5ean Oñatin egindako batzarrean, Eusko Ikaskuntzak Euskaltzaindia sortzea erabaki zuen.

**1921.** Abuztuaren 29an Nafarroako Aurrezki Kutxa sortu zen.

**1988.** Abuztuaren 28an Jose Bergamin errepublikarra hil zen Donostian.

### MUNDUAN GERTATUA

**1939.** Irailaren 1ean II. Mundu Guda hasi zen Alemaniak Polonia inbaditu ostean.

### zozketak

#### BONO LOTO

##### Eguakitzaren 28

7-16-17-20-22-36 (osag.33/er.4)

##### Astelehena 31

13-17-19-31-37-38 (osag.49/er.9)

##### Martitzena 1

1-2-4-30-39-43 (osag.42/er.4)

##### Eguaztena 2

5-7-9-15-42-48 (osag.11/er.6)

#### PRIMITIVA

##### Zapatua 29

5-6-19-37-38-47 (osag.10/er.0)

##### Domeka 30 Gordo

6-11-23-29-45-46 (osag.20/er.5)

#### ONCE

**Eguakitzaren 28:** 92.373 (K. seriea: 108)


**Astelehena 31:** 99.176

**Martitzena 1:** 78.040

**Eguaztena 2:** 67.487

### Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Zeru estaliak nagusituko zaizkigu astebukaeran. Zapatu gauean eta domeka arratsaldean euria ere egin dezake. Tenperatura ez da aldaketarik izango eta haizeak mende-baldetik joko du arin.

### Ilargiaren aldiak



Ilbehera: abuztuak 30



Ilberri: irailak 6



Ilgora: irailak 13



Ilbete: irailak 20

### Eguzkia

Domeka, uztailak 19



Sortu: 07:49



Gorde: 20:40

### Tenperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 27</b>	27	18	-
<b>Eguakitzaren 28</b>	22	11	-
<b>Zapatua 29</b>	25	6	-
<b>Domeka 30</b>	35	7	-
<b>Astelehena 31</b>	35	13	4,8
<b>Martitzena 1</b>	32	18	2,3
<b>Eguaztena 2</b>	32	18	-

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Aixelbuztan

Aixelbuztana (Equisetum arvense) Azeri buztana. Cola de caballo.

Lora gabeko landarea, arrabete edo bi luze, izai txiki baten antza du. Estainuzko ontziak garbitzeko erabili izan da eta horregatik Euskal Herriko zenbait tokitan estainu belar deitzen zaio.



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Epilepsia kontrolatzeko beste modu bat

Mundu osoan, 50 milioi lagun inguru dira epileptikoak. Hori dela eta, Cyberonics etxeak Neuro Cybernetic Prosthesis sistema elektrikodun gailua kaleratu du. Taupada-markagailu baten antzeko sistema du eta bularreko azal azpian ipintzen da. Kable bat nerbio bagora konektatzen da eta horrela seinale antiepileptikoak zuzenean burmuinera bidaltzen dira.

## Farmaziak

### Eguakitzaren 4:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Zapatua 5:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

### Domeka 6:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

### Astelehena 7:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

### Martitzena 8:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Eguaztena 9:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

### Eguena 10:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

## Ogia

Domeka 19: Mizpildi.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 51
Gurutze Gorria	943 76 95 76
Larrialdiak	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 45
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 62
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 56 67
Jubilatu Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 65

# zorion agurrak



**Julen Arana**  
Uztailaren 24an  
6 urte. Zorionak!  
Gurasoak eta  
arrebak Mireia.



**Asier Iparragirre**  
Uztailaren 25ean  
11 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Maialen Alkorta**  
Irailaren 2an  
12 urte. Zorionak!  
Masterrekako eta  
Poligonoko familiak.



**Aitor Gomez**  
Abuztuaren 4an  
11 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Jokin Lazpiur**  
Irailaren 2an  
8 urte. Zorionak!  
Etxekoak eta  
Amaie.



**Leire Aperribai**  
Abuztuaren 20an  
3 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Andoni Mujika**  
Irailaren 5ean  
5 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Martin Mujika**  
Irailaren 15ean  
4 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Amaia Vicente**  
Uztailaren 22an  
32 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Julio Vicente**  
Uztailaren 21ean  
urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



**Iñaki Ostolaza**  
Irailaren 4an  
56 urte. Zorionak!  
Ainhoa.



**Ainhoa Agirrezabal**  
Abuztuaren 26an  
urtebete. Zorionak!  
Gurasoak eta familia.



**Jon Barragan**  
Abuztuaren 5an  
urtebete. Zorionak!  
Familiakoak eta  
arrebak Ane.



**Arantxa eta Iñaki Goikoetxea**  
Uztailaren 17an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Bepiat.



**Joanes Plazaola**  
Abuztuaren 18an  
2 urte. Zorionak!  
Familia.



**Jon Alberdi**  
Irailaren 1ean  
4 urte. Zorionak!  
Familia.



**Maialen Marauri**  
Irailaren 2an  
4 urte. Zorionak!  
Aita, ama eta Aitor.



**Aitor Zabala**  
Irailaren 2an  
8 urte. Zorionak!  
Jon.



**Juncal Bakaikoa**  
Irailaren 2an  
29 urte. Zorionak!  
Etxekoak, Mireia  
eta Piti.



**Saioa Rajado**  
Abuztuaren 16an  
8 urte. Zorionak!  
Familia.



**Amaia Rivero**  
Irailaren 8an  
6 urte. Zorionak!  
Familia.



**Ruben Peña**  
Irailaren 3an  
11 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Marian Fernandez**  
Irailaren 8an  
35 urte. Zorionak!  
Lidia, Ruben  
eta familiakoak.



**Olatz Ugalde**  
Abuztuaren 27an  
5 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Lorea Madinabeitia**  
Irailaren 9an  
2 urte. Zorionak!  
Idoia eta etxekoak.



**Eneritz Bikuña**  
Abuztuaren 27an  
4 urte. Zorionak!  
Aizibar  
eta etxekoak.

## ESKER ONA

# Kontxita Aldekoa Olabarria

Bergaran hil zen  
1998ko abuztuaren 7an,  
84 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi  
eskerrik asko familiakoan partez.*

### jaioetakoak

#### BERGARA

**Unai Lizarralde Iturbe**  
Uztailak 10  
**Iker Osinaga Fernandez**  
Uztailak 10  
**Gurutz Axpe Telleriarte**  
Uztailak 13  
**Luis Ibañez Zabaleta**  
Uztailak 15  
**Brian Eskobar Rubio**  
Uztailak 20  
**Uxue Egaña Iztueta**  
Uztailak 24  
**Sara Peñin Alberdi**  
Uztailak 25  
**Eneko Larrañaga Madariaga**  
Uztailak 26  
**Aitor Larrea Sebal**  
Uztailak 30  
**Maitte Arrillaga Bengoa**  
Abuztuak 12  
**Maitane Atutxa Eguren**  
Abuztuak 23  
**Eider Egaña Oianguren**  
Abuztuak 28  
**Maidar Jauregi Aranburu**  
Abuztuak 31

### hildakoak

#### BERGARA

**Maria Irastorza Albizu**  
Uztailak 16, 96 urte  
**Jesus Maiztegi Gantxegi**  
Uztailak 23  
**Jabier Idigoras Gardoki**  
Uztailak 24, 54 urte  
**Joakin Etxaniz Artetxe**  
Uztailak 25, 84 urte  
**Ubaldo Rodriguez Diaz**  
Abuztuak 6, 85 urte  
**Kontxita Aldekoa Olabarria**  
Abuztuak 7, 84 urte  
**Pedro Ruiz Ruiz de Gauna**  
Abuztuak 7, 66 urte  
**Maria Ormazabal Aiastui**  
Abuztuak 8, 93 urte  
**Jose Gonzalez Mateo**  
Abuztuak 8, 64 urte  
**Jose Agirre Uranga**  
Abuztuak 22, 70 urte  
**Dolores Irazabal Aranzabal**  
Abuztuak 31, 85 urte  
**Teodora Alberdi Garbizu**  
Abuztuak 31, 72 urte

### mezak

**Santa Marina**  
Domekak: 11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Ianegunak: 19:30.  
**San Pedro**  
Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta  
ianegunak: 19:00.  
**Osintxu**  
Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.  
**Elosu**  
Domekak: 10:00.  
**Ubera**  
Domekak: 10:30.  
**San Juan**  
Domekak: 11:00.  
**Basalgo**  
Domekak: 13:00.  
**San Prudentzio**  
Domekak: 10:30.  
**Labegarieta**  
Domekak: 11:00.

**San Lorentzo**  
Zapatuak: 20:00.  
**Angiozar**  
Domekak: 10:30.  
Eguakitza: 19:00.  
**Monja Zaharrak**  
Domekak: 19:30.  
Zapatuak eta  
ianegunak: 20:00.  
**Mizpirualde**  
Domekak: 11:45.  
Zapatuak eta  
ianegunak: 11:45.  
**Mariaren Lagundia**  
Domekak: 10:00.  
Zapatuak eta  
ianegunak: 09:00.  
**Antzuola**  
Domekak:  
09:00, 11:30.  
Zapatuak eta  
ianegunak: 19:30.  
**Uzarraga**  
Domeka: 10:00.

## ANTZERKIA

► **“Un marciano en escena”**, Mariano Marianorekin gaur, eguakitzatza, 22:30ean Elorrrion.

► **“Alo Europa”** kale antzerkia domekan 22:30ean Elorrrion, Markeliñe taldearekin. Gaueko 12etan **“El blues del albornoz”** kafe antzerkia Tirrinka Tarrankarekin.

## MUSIKA

► **Tuco**, porno-rock kontzertua gaur eguakitzatza, 01:00ean Elorrrion.

► **No respect**, bihar, zapatua, 22:00etan Arrasateko Gaztetxean.

## ERAKUSKETAK

► **Andres Trompetak** lore eta hostoekin egindako lanak Bergara Kafe Pentsioan.

## LEHIAKETAK

► **Jubilatuena kultur hamabostaldirako kartel lehiaketa**. Gaia: “Beti dago pauso bat gehiago ematea”. Ondorengo testua azaldu beharko da kartelean: “Antzuola eta Bergarako Jubilatuen II. Kultur Hamabostaldia. 1998ko urria-azaroa”. 75.000 pezetako sari bakarra izango da.

### ERAKUSKETA

## Gorka Elorzaren oleoak eta plumilak

**Non:** Nahikari taberna  
**Noiz:** irailaren bukaerara arte

Gorka Elorza bergarar gazteak azkenaldian margotutako oleoak eta plumilak erakusten ditu egunotan Nahikari tabernan. Eburne Erañaren ikaslea, Gorkak hamar bat urte daramatza pinturaren sekretuak lantzen. Bere hitzetan, “hasieran lapitzarekin marrazten hasi nintzen, ondoren plumila lanak egiten eta azkenaldian nagusiki koadroak margotu ditut”. Nahikari-ko erakusketa oleoak eta plumilak zintzilikatu ditu Gorkak; “azken urteotan egindako lanen selekzio bat egin dut eta guztira 11 oleo eta 2 plumila izango dira ikusgai. Oleoen artean bodegoiak eta paisaiak dira nagusi eta plumiletarako herriko bi txoko aukeratu ditut, Usondoko iturria eta San Pedro. Plumilekin pazientzia asko behar da, nahiko neketsua da”. Gorkari bodegoiak margotzea

gustatzen zaio gehien; “normalean argazkietan oinarrituz lan egiten dut, edo beste koadro batzutatik zatiak aukeratuz... Paisaiekin ere antzerako prozesua izaten da; marraztu behar dudaren paisaiaren aurrean egon beharrean, nahiago dut argazkietatik tokiak aukeratzeko”. Bere lehendabiziko erakusketa honetan Donostia, Araba eta kostaldeko beste hainbat txoko ezagutu ahal izango dituzte ikusleek. Margotzeko sasoirik gustokoena udazkena duela esan digu Gorkak.

Oporretako azken egunak aprobetxatuz, laister ekingo dio Gorkak ikasturte berriari. Datorren urtean zein karrera ikasi aukeratu beharko du baina ez dauka bate-re garbi zer Arte Ederrak ikasiko duen ala ez; “momentuz pintura afizio bat besterik ez da niretzat”. B



Gorka Elorzaren lehen erakusketa izango da ikusgai Nahikari.

Lanak Jubilatuetan jasoko irailak 11ra arte.

► **Aramaioko Sagitario saria**, bidaiari haundien literatur lehiaketa. Lanak euskaraz zein gazteleraz egin ahal izango dira. 100.000 pezetako saria.

Lanak irailaren 15era arte jasoko dira helbide honetan: Udaletxea. 01160 Aramaio. Araba.

## DEIAK

► **Odol ateraldia** eguazte-

nean, hilak 9, 18:30ean.

► **Aramaioko Sagitario saria**, bidaiari haundien literdira. Argibideak Marsans bidai-agentzian, 943 45 65 93.

► **San Martin** jaietako

### ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

### LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5 BERGARA

☎ 943 76 10 57



### ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

barazki, lora, fruitu eta gaz-  
ten feria egunean  
Bedelkarreko harakinek  
Seminarioan antolatuko  
duten **txekor afarirako**  
**txartelak** salgai daude  
(1.900 PTAn) Bedelkarreko  
harategietan. Menua: entsa-  
lada, txekorra piparrekin  
eta Bergarako errelenoak.  
Afalostean dantzaldia.

► **EAJK** irailaren 27an  
Salburuan ospatuko duen  
Alderdi Egunerako autobus  
eta bazkari txartelak  
Batzokiko tabernan salgai.  
Irteera goizeko 9etan.

► **Egin** egunkaria eta irra-  
tiaren eta adierazpen aska-  
tasunaren aldeko herritar  
talde batek tonbola jarriko  
du San Martin jaietan kale-  
an, Eginen alde dirua  
batzeko. Ekimen honetan  
lagundu nahi duten herritar  
guztiek tonbolan zozketatu  
ditekeen edozein motata-  
ko materiala honako taber-  
na hauetan laga dezakete:  
Txamonix, Pol-Pol,  
Ariznoa, Zuhaitzi eta Biko.

## OHARRAK

► **Musika Eskolan** klase-  
ak (pianoa, akordeoia, kan-  
tua, tronboia, bonbardinoia,  
klarinetea eta gitarra) hila-  
ren 10ean hasiko dira.  
Ordutegiak hartzeko eguna  
hilarren 9a da, 17:00etatik  
20:00etara.

► **Aranzadi Ikastolak**  
telefonoa aldatu du, beraz,

aurrerantzean telefono  
bakarra izango da San  
Martin plazako zein Boni  
Laskuraineko ikastetxeetan:  
943 76 90 71. Faxa, berriz,  
943 76 91 77.

► **San Martin**  
**ikastetxean** klaseak dato-  
rren eguaztenean, hilak 9,  
hasiko dituzte goizeko  
9etan, ikasle guztiek 2 urte-  
koak izan ezik. Hauek hila-  
ren 21ean hasiko dute ikas-  
turtea.

► **Yopa eta brikolaketa**  
**ikastaroa** emakumeentzat.  
Izen-ematea hilaren 11  
baino lehen. 943 77 91 65.

► **Hautesleen zerrenda**  
irailaren 7tik 14ra, biak  
barne, Idazkaritzako bule-  
goetan ikusgai.

► **Ondasun Higiezin**  
**Gaineko Zerga** (kontribu-  
zioa) eta Ekonomi  
Jardueren Gaineko  
Zergaren erreziboak  
ordaintzeko borondatezko  
epea azaroaren 10era arte  
zabalik. Argibideak udal  
bulegoetan.

## KINTADAK

► **1948**an jaiotakoen afaria  
irailaren 26an Lasa jatetxe-  
an, 21:30ean. Aurretik meza  
izango da Santa Marinan.  
Afalostean, mariatxiekin  
dantzaldia. Izen-ematea  
(8.500 pezeta) Kutxan edo  
Euskadiko Kutxan irailaren  
22ra arte zabalik.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

**Expediente X**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

#### ARRASATE. Alai zinema

**Armageddon**  
Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

**Godzilla**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna:  
19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

**City of angels**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### OÑATI. Santana

**Armageddon**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

#### ELORRIO. Arriola

**Little Odessa**  
Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### AZKOITIA. Baztartxo

**El gran Lebowski**  
Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
**Armageddon**  
Domeka: 16:45, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

### EXPEDIENTE X

**Zuzendaria:** Rob Bowman.  
**Aktoreak:** David Duchovny,  
Gillian Anderson, Martin Landau.  
Chris Carterrek sorturiko tele-  
bista sailak munduan zehar  
izan dituen jarraitzaile kopu-  
ruea ikusirik, produktoreek  
pantaila handira ekarri dituzte  
Mulder eta Scullyren gorabe-  
herak. Berriz ere lurretik kan-  
poko fenomenoak aztertu be-  
harko dituzte FBI bi agente az-  
karenekin, paraje zoragarrietan  
oraingoan.



### GODZILLA

**Zuzendaria:** Roland Emerich.  
**Aktoreak:** Matthew Broderick,  
Jean Reno, Hank Azaria.  
Efektu berezi ikusgarrienak  
aprobetxatuz, filme honen  
bertsio berria egin dute estu-  
batuarrek. Emerich zuzenda-  
ria Spielberg maisuaren ikasle  
trebea omen da eta Godzilla  
mamua New York hirian ko-  
katu du oraingo honetan. Bel-  
durra eta umorea tartekatzen  
dituen filmea.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Izena ematean  
%10EKO BEHERAPENA  
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

**Irailaren 1etik dago indarrean Osasun Ministeritzaren "medikamentazio" deritzan neurria. Honen arabera, 834 botikak ez dute orain arteko Segurantzaren Sozialaren finantziatorik izango. Salbuespenak salbuespen, medikuek horien ordezkioak aginduko dituzte hemendik aurrera. Anbulatorioko Itziar Rico medikuarekin hizketan izan gara.**

**G.** Badirudi zerrendan agertzen diren botika horiek ordezkatzeko ez dela oztoporik izango...

**E.** Ez dakit ordezkio botiken zerrenda noizko izango den prest, baina dagoeneko hasi gara beste botika batzuk agintzen. Nire ustez, gai honek gehiegizko oihartzuna izan du komunikabideetan. Ez da hainbestera. Azken batean, patologia guztiak beteko dira ordezkio botikekin. Beste kontu bat izango da neurri honek benetan gastu farmazeutikoren murrizketa ekarriko duen.

**G.** Estatuko gastu farmazeutikoa Europako altuenaetakoa da.

**E.** Nik ditudan datuen arabera, behintzat, ez da horrela. Badira biztanleko preskripzio gehiago dituzten hainbat herrialde Europar. Baina egia da gastu hori murriztu daitekeela. Esate baterako laneko bajen erreibisioekin diru mordo bat aurreztu liteke eta hori pentsiodunen onerako izango litzateke, beraiek baitira gehien kontsumitzen dutenak.

**G.** Gastua murrizteko neurri egokia iruditzen zaizu "medikamentazio" deritzana?

**E.** Nik uste dut ez dela neurri on bat, ez dagoelako frogatua honekin gastu far-

ITZIAR RICO

Bergarako anbulatorioko medikua

*"Zerrendatik kanpo geratuko diren ordezkio botikekin ez da arazorik izango"*



"Ordezko botikak zenbait kasutan garestiagoak izan daitezke".

mazeutikoa murriztuko denik. 1993an ere antzerako neurri bat jarri zen martxan eta daturik ez ditudan arren, ez dut uste gehiegi aurreztu zenik. Gastu farmazeutikoa kontrolatzearen hainbat botika laguntzarik gabe geratuko dira; nahiz eta epe laburrean emaitzak lortu, ikusi behar epe luzera benetan gastuaren murrizketa

**"Gaiso kronikoek ez dute aldaketarik igarriko, eurek hartzen dituzten botikek laguntza izaten jarraituko dute eta; jendea lasai egon dadila"**

lortzen den. Nahiz eta ordezkio botikak agindu, zenbait kasutan horiek garestiagoak izan daitezke. Eta txarrrena zera da, kontu honetan kaltetuenak pentsiodunak izango direla.

**G.** Zein izango litzateke konponbidea?

**E.** Preskripzioaren kalitatea hobetzea derrigorrezkoa da. Botika egokiak aginduz gero, gaisoak lehenago sendatuko dira. Ikusi besterik ez dago etxeetan dagoen botika piloa. Beste kontu bat hori izan daiteke, tratamenduaren iraupenaren arabera, pirulen kopurua kontrolatu. Hainbat herrialdetan hori egiten dute. Ez dakit gaur egun hori hemen egiterik egongo litzatekeen, baina aukera hor dago. Gehiegikeria asko izan da eta arrazionalizazioa jo behar dugu.

**G.** Gaisoek jakin nahi izango dute hemendik aurrera agindutako botika Segurantzaren Sozialaren barruan sartzen den ala ez...

**E.** Bai, jendeak interesa azaltzen du, baina gaiso kronikoek ez dute aldaketarik izango, botika horiek laguntza izaten jarraituko dutelako. Baina esaten dizut, Bergarako anbulatorioan, behintzat, ez dugu ezer berezirik igarri "medikamentazio" indarrean jartzeagatik, medikuon artean ere ez dugu kontua gehiegi komentatu.

**G.** Errezetak gehitu dira "medikamentazio" indarrean jarri aurretik?

**E.** Ez, ez da horrelakorik gertatu. Esan bezala, normaltasun osoz hasi gara iraildeko lehen egunetik eta abuztuaren lanean izan diren medikuek aipatu didatenez, jendeak ez du zerrendatik ateratako botikarik pilatu. Ordezkoekin ez da arazorik izango, jendea lasai egon dadila. B



# Zapatu gaueko kale istiluak gaitzetsi egin zituen Udalbatzak

## HBk ez zuen bat egin testuarekin; 60-70 milioi inguruko kalteak

**Zapatu gaueko kale istiluak gaitzetsi egin zituen Udalbatzak martitzenean.**

HBk ez zuen bat egin gobernu taldeak onartutako idatziarekin, Jesus Mari Garitano bozeramaleak adierazi zuenez, "testu negargarria delako" eta idatzia talde guztien artean onartzeko gobernu taldeak oposizioa deitu ez izanagatik. Victoriano Gallastegi alkateak erantzun zion interesa edukiz gero ateak zabalik izan zituztela oposizioaren proposamenak eztabaidatzeko.

Udalbatzak "Bergarako herriaren kontra egindako izu-ekintzak erakunde moduan, publikoki eta berehala salatzea" onartu zuen. Era berean, kalteak jasan dituztenei ofizialki elkartasuna adieraztea eta Udaletik ikerketa ofiziala hastea, gertakariak argitu eta erantzukizuna zehazteko.

Alkateak euskaraz eta gaztelera irakurri zuen onartutako testua. "Ekintza terroristatzat" hartu zituen zapatuko istiluak eta erasoaren "egile zuzen izan direnak eta baita hainbestearainoko izua eta doilorkeria babestu edo kondenatzen ez dutenak ere ignominia eta desohorez betetzen dituztela" adierazi zuen. "Gaiztakeriaz eragindako ekintza larri hauek edozein ekintza terroristak izaten dituen ondorioak izan ditu gurean ere: izu-ikara eta larritasun luzeak bergarar guz-



La Caixa erabat hondatuta geratu denez, autobus batean jarri dute egun hauetan behin-behineko bulegoa.

tientzat eta gertakarien lekutik hurbil bizi direnentzat, batez ere" esan zuen.

Jesus Mari Garitanok (HB) zapatuan gertatutakoa Euskal Herrian bizi den gaztaka egoeraren "islada txiki bat" zela adierazi zuen eta era horretako ekintzak egunen batean amaituko direla eta pakea lortuko dela esan zuen baina, horretarako, "beste aldetik keinu batzuk eman behar liratekeela" adierazi zuen. Bidea bake proposamenak hartu eta baldintza barik berba egitea zela esan zuen. Garitanok, zapatuko erasoaren ondorioz kaltetuei euren elkartasuna adierazten zietela esan zuen.

Gogoratuko duzue, kaputxadun batzuek su eman zioten zapatu gauerdian Euskadiko Kutxak Ma-

txiategi kalean duen bulegoko kutzazain automatikolari. Ordu laurden berandua go burua estalita zeramaten ezezagun batzuek koktelak jaurti zituzten Arrese etxearen behean dagoen La Caixako bulegora.

Euskadiko Kutxako bulegoan sua oso denbora laburrean kontrolatu zuten suhiltzaileek eta kalteak ez ziren oso haundiak izan. La Caixan, ordea, koktelak barruraino sartu ziren eta suak erabat kiskali zuen bulegoa. Suaren eraginez, honen gainean dagoen etxebizitzak, Martutenen espetxeratu dagoen Jose Luis Elkoro HBko mahaikidearenak, kalte ugari jasan zituen sua ondo amatatzeko zorua jaso behar izan baitzuten. Etxearen ataria ere kaltetuta gertatu zen eta bigarren, hiru-

garren eta laugarren pisuko etxebizitzak beltzitu egin zituen keak; inguruko etxetara ere sartu zen kea.

Suhiltzaileak eta Ertzaintza berehala gerturatu ziren eta suak inguruko etxeak hartu ez bazituen ere, domeka eguerdira arte ez zuten sua erabat menderatu. Eraso honen ondorioz, Arrese etxeko bizilagunek herriko hoteletan eta familiartekoen etxetan igaro behar izan zuten gaua. Bi eraso hauek eragin dituzten kalteak 60-70 milioi pezeta-koak izan dira alkateak adierazi duenez.

Martitzenean telebista kamara ugari eta hainbat komunikabidetako kazetariak bildu ziren Pleno aretoan. HBk "komedia mediatico"tzat jo zuen komunikabideen presentzia. **B**



Uhola edo Deskarga erreka bideratzeko lanak hasi aurretik, San Migel kaleko hainbat etxe bota dituzte.

## Uhola erreka bideratzeko lanak datorren udaberrira arte Irailean zehar ere trafikoa moztuta San Antonion

**Uhola erreka** bideratzeko lanetan dihardute uztaile amaieratik. Atzerapenarekin hasi badira ere, bederatzita hilabeteren buruan lanak amaituta egotea espero da. Arregi aroztegi parean hasi eta Deba ibaiarekin bat egiten duen tartean dauden 470 metroetan egingo dituzte lanak. Helburua San Antonion izaten diren uholdeak ekiditea da. Aurrekontua 262 milioi pezetakoa da.

Obrak direla eta, abuztuaren zehar bezala irailean ere San Antonioko errotonda itxita izango da eta baita Martoko eta Zubiaurrerako bidea ere. Horregatik, hainbat trafiko aldaketa izan dira: Toki Ederrera joateko, Ertzaintzaren komisaldegiko aldapatik igo eta Espoioia zeharkatzea, lehengo kaminotik baina kontrako norabidean, gomendatzen da. Uhola erreka Movilla az-

pitik eta etorkizunean honen ondoan eraikiko diren babes ofizialeko etxebizitzetan azpitik joango da zati haundi batean eta hortik aurrera, Deba ibaira arteko 62 metroetan, ubidea zerbait aldatuko da Debarekin bat egiten duen tokian 30 graduko anguloa egin dezan. Arregi aroztegitik Movillaraino arte dauden 120 metroetan erreka zabaldu eta hormak egingo dira. B

### Abuztu lasai eta beroa Bergaran

#### Aurtengo abuztua

lasai samarra eta beroa izan da. Ez da ezbehar aipagarriarik gertatu, joan zen zapatuan Euskadiko Kutxa eta La Caixako bulegoen aurka egindako erasoak izan ezik. Horretaz gain, abuztu erdialdean lapurretak izan ziren Burdiñate eta Kruz Gallastegiko hiruzpalau etxetan, baina lapurrek ez ei zuten gauza haundirik eraman.

Bestalde, eguraldi on samarra izan dugula esan daiteke: ez du apenas euririk egin eta zero urdinak nagusitu dira egun askotan. Hori bai, beroa izan da nagusi, lehen hamabostaldian batez ere. Narbaizaboluko Luis Mari Agirrek eman dizkigun datuen arabera, abuztuaren 9an 40 graduraino igo zen termometroa: "15 urte daramatzat Bergarako datuak biltzen eta sekula ez dut hain temperatura alturik ezagutu" esan digu. Abuztuaren 8an 39 gradu izan genituen eta 7an eta 11n 36.

Bestalde, iaz baino kontsulta gutxiago egin dira Turismo bulegoan, nahiz eta hoteletan, jatetxeetan eta kalean kanpotar ugari ibili.

### GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

### A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

# Angiozarko pilotalekua konpontzeko lanak berriz adjudikatuko ditu Udalak

**Angiozarko** frontoia konpontzeko lanak berriz adjudikatuko ditu Udalak. Uztailaz geroztik makinak gelditi egon dira eta Udalak espedientea ezarri dio obrak kontratatu zituen enpresari.

Angiozarko pilotalekuko paretak eta zorua konpondu, egurrezko egituradun zapaia jarri eta estali, eta grada berriak eta aldagelak egiteko lanak 56 milioi pezetan adjudikatu zizkion Udalak Berri S.A. enpresari; honek, bestalde, Etxabide S.L. enpresari subkontratatu zizkion obrak. Halere, kontratua ez dute bete eta lanak gelditi egon


dira bi hilabete inguru.

Honen aurrean, zigor espedientea ireki eta fidantza kendu dio Udalak ezarritako epeak bete ez dituen

enpresari eta obrak berriz ere adjudikatzeko baldintza pleguak erredaktatzen dihardute une honetan. Obrak hil honetan berriz

ere adjudikatu eta urte bukaerarako pilotalekua berriztuta egotea espero dute. Hasiere batean, San Migel jaietarako frontoia inauguratzeko itzaropena zuten Udal agintariek eta Angiozarko bizilagunek.

Frontoia berrizteko ha maika arazo izan badira ere, Beheko kalea konpondu eta zabaltzeko lanak bide onetik doaz. Lanak amaitzeki badaude ere, horma berriak egin dituzte eta kaleak beste itxura bat hartu du. Estolderia lanak bukatu ostean, zoruan asfaltu berria botako dute eta autoak kalean zehar ibili ahal izateko egokituko da. **B**



Angiozarko frontoia berrizteko lanak gelditi egon dira azken bi hilabeteotan.

# 1 1948an jaiotakoen 9 afaria

Lasan, irailaren 26an, zapatua, 21:30etan

**MARIATXIEKIN!**

Meza Santa Marinan eta argazkia

Interesatuak 8.500 PTA ingresatu Kutxan edo Euskadiko Kutxan.

*Urrezko ezteiak*

**OIÑ EROZEIN KAKAUMEK JAUZKAK 50 URTE!**



# Berrigara

333 zenbakia.  
1998ko irailaren 4a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara  
Telefonoa: 943 76 03 97.  
Faxa: 943 76 29 77  
E.mail: [berrigar@sendanet.es](mailto:berrigar@sendanet.es)  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.  
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketa:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugaldel, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elaxpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**primategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauriritzako  
Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuaz: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: [berrigar@sendanet.es](mailto:berrigar@sendanet.es) (Gutunak identifikatu egin behar dira).

### EGINEKIKO ELKARTASUNA

Egin egunkaria eta Egin Irratia ixteko Baltasar Garzon epaileak emandako aginduaren aurrean, Berrigara astekariko langileek euren elkartasuna adierazi nahi diete lan barik eta kalear geratu diren bi komunikabideotako langileei.

Egin egunkaria eta Egin irrati ixteak adierazpen askatasunaren eta euskal kulturaren kontrako erabakia dela uste dugu. Horregatik, gure elkartasuna adierazi nahi diegu bi komunikabide horietako langileei, bereziki, BERRIGARAKO kolaboratzaile diren Martin Garitano eta Jon Altuna "Oxan" berrigarrei.

*BERRIGARAKO langileak*

### VICTORIANO FAXISTA ZU ZARA TERRORISTA


Abuztuaren 30eko gertakarien ostean "gure" alkate den Victoriano Gallastegik telebistei eginiko adierazpe-

netan eta udaleko plenoan gazteok jo gintuen ekintza horien errudun. Plenoan erdaraz irakurri zuen ekintza kondenatzeko mozioa, hau ezoizkotzat jo dezakegu; baina espainiar komunikabideak bertan zeudela ikusirik beste sasidemokratek bezala espainieraz mintzatu zen euskaldunon oinarrizko eskubidea zapalduz. Han zegoen Bergarako demokratik faxistena kamaren aurrean lerdea zeriola gazteoi erru gutzia botatzen. Baina beraien burua demokratizat dutenek badakite gazteok ez dugula eta ez gaudela inoren menpe ezer egiteko; eta Bergaran gertatutakoa Euskal Herriko arazoaren islada txiki bat besterik ez da. Bestetik aipatu beharra dago arazo honen azken urteotan estatu espainolaren ekintzek PNVren babes osoa izan dutela. Honela Eginen itxierarekin ere PNVk hitz gogorak izan ditu honen aurka, manifara ere joan ziren (bada zer bait) baina beraiekin Madrilen gobernatzen dutenek itxi

digute Egin eta "demokrata euskaldunek" ez dute ezer egin ez Egineko langileen alde ez eta Euskal Herriko egoeraren alde. Gu biolentoak omen gara baina gure biolentzia Estatu espainolak bere bufoi duen PNVren laguntza eta babesaren aurkako biolentzia da, beraz nor da hemen biolentzia? Zeren euskaldunoi ez digu inork galdetu ea espainiarrak izan nahi dugun eta Euskal Herria konkistatuz lortu dute "Gu espainolak izatea" eta ez beraiek esaten duten bezala "españa fue la union casual de varios países". Azkenik, aipatu behar dugu Victorianok ez duela honelako bizkortasuna erabiltzen edota elkartasunik adierazten beste egoera kezagarri batzuetan.

*Bergarako Jarrail  
E.M.A. (72.578.233)*

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



▀ atrebentzia ezpada

▀ bai, esan!

## Aurtengo oporrak, joan zen urtekoak baino hobeto ala okerrago igaro dituzu?



**Jose Mari Fernandez**

Antzera igaro ditut. Hamabost egun Andaluzian eta beste 15 Nafarroan eman ditugu. Iaz ere berdintsu egin genuen. Txarrena lanera bueltatzea izaten da.



**Agurtzane Arriola**

Aurtengoak hobeto pasatu ditut. Nahiz eta egun gutxiago izan gustorago ibili naiz, hobeto aprobetxatu ditut, Castellonen eta Asturiasen egun batzuk igaroz.



**Jacinto Colinas**

Berdintsu pasatu ditut, uztaileko azken astea eta abuztuko lehenbiziko hirurak aitarekin Leonen egon naiz eta. Azken urteetan han izan gara eta ondo...

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Mikel Agirre**ren deia jaso dugu oporretatik bueltan BERRIGARAKO erredakzioan. Agirrek zera adierazi nahi du: Udalak turismoa bultzatu nahi badu, udan herrian izaten den jatetxe eskaintza gehiago zaindu beharko duela. Jatetxe gehienak itxita egoten dira abuztuan eta beraz kanpotik datozenek ez dute bertan bazkaltzeko ia aukerarik izaten. Agirreren ustez, gai hori zaintzea derrigorrezkoa da herriak bisitariak jaso nahi baditu. Era berean, igerilekuetan bazkaldu ahal izateko bertako tabernaren esfortzua eskatu nahi du, ez baita bazkaririk ematen eta ogitar-tekoen eskaintza oso mugatua delako.



**Manoli Torres**

Antzerakoak izan dira, urtero Cordobara, La Carlota joaten naizelako, hangoa naiz eta. Han ere etxeko lanak egin behar... Baina ondo pasatu dugu.



**Francisco Leturia**

Beti bezala joan zaizkit. Euskal Herritik ez naiz irten: kostaldera, Bilbora, Donostiara, Gasteizera, Iruñera irteerak... Iaz bezala, Santanderren izan ginen.



**Mari Jose Rodriguez**

Hobeto pasatu dut. Astebe-te Malaga aldean eman dut; ez nuen ezagutzen eta asko gustatu zait. Eta gainontzeko egunak Extremadura aldean, urtero bezala.

▀ ikuspuntua: **emilio vinuesa**

### Opor osteko sindromea

Egun hauetan ezezagunen batek estresa, gogrik eza, tristura kronikoa edota oporren amaierarekin zerikusia daukan beste edozein gaitzen gainean berba egiten didanean kosta egiten zait barreka ez hastea. Ilogailuan, maletaz leporaino doan familieren batekin topo egiten badut, ezutka hasten naiz..., barregura izkutatu nahian. Etxeak ematen didan bakartasunean, ostera, ezin izaten diot eutsi eta barrez lehertu beharrean egoten naiz telebistan etxerantz doazen auto-karabanen berri ematen dutenean.



rrelako jarrerarekin ez diodala batere laguntzen gure turismoaren osasunari..., kontuak!


Laga eidazue azaltzen. Egia esan, inguru turistikoetan bizi garenontzat udak hainbat aldaketatxo dakartza, gure berezko umorea eta udatiarrekiko jarrera beroa oztopatzen dutenak. Esate baterako, zer egingo zenuke-

Hainbatek pentsatuko duzue amargatu bat naizela, besteak oporretan ederki dabilzan bitartean nik lan egin beharra dela deprimitzen nauena, horrelako

te arratsaldero pasiatzen duzuen hondartza, egun batetik bestera, ibili ere egin ezin den giza-izurritegia bihurtuz gero? Pentsa ezazue ogia (edo txurroak, domeketan) erostera ir-tetea abentura jasangaitza bihurtzen dela; egunkaria lortzea, zientzi fikzioa... Frantses, ingeles edota alemanek lasai asko galde-tzen dute euren hizkuntzetan. Etxera berandu itzulitakoan, lotsagaberen batek zure to-kian aparkatu du kotxea (eta, gainera, hil osoan mugitzeko asmo barik). Eta horrela azaltzen erraza ez den sentsazio arraro ba-tekin esnatzen zaren egunera arte: abuztua-ren 31 da eta hamaika bakartasun-hil zora-garri dituzu aurrean "aspertzeko". **B**

■ asteko menua: **erreki erretegia**

## Bisigua parrilan



INAS ETXANIZ  
*Erreki erretegioko sukaldaria*

### OSAGAIAK (2 lagunentzat)

- Kiloko bisigua
- Oliba olioa
- Berakatz
- Gatza
- Pipermin berdeak

### PRESTAKETA

- Bisigua garbitu eta bisigu sarean ipini.
- Parrila gainean alde bakoitza 10 minutuz eduki.
- Gero, bisigua erditik zabaldu eta hezurra kendu.
- Gatza eta xehetutako pipermin berdeak bota.
- Berakatz xehetua oliotan erre eta bisiguaren gainean zabaldu.
- Azkenean, perrexil fresko apur bat bota gainetik.

■ adituen esanetan

## Prostata

ALBERTO LLUCH, *urologoa*

Prostataren hipertrofia kasuak, normalean, 50 urtetik gorako gizonezkoen artean ematen dira eta adin horretakoan artean, batzaz beste, %65ari afektatzen diela esan daiteke, indize hori nahiko aldakorra bada ere. Sintomak, besteak beste, txiza egiterakoan zailtasunak, txiza egiteko maiztasuna handitzea, premiaz ibiltzea edota txiza egitean etenaldiak izatea lirateke. Tratamenduari dagokionez, badira tratamenduaren beharrik ez duten kasuak baina beti ere mesedegarria izango da hainbat aholku higieniko eta dietetiko jarraitzea. Horrela, gogoia dugun bakoitzean txiza egitea, kirola egitea (pasia-

tzea nahikoa izan daiteke), idorreria saihestea, betekadarik ez egitea (kafea eta alkohola ahal den neurrian murriztuz) eta denbora askoan eserleku bigungarrietan ez egotea lagungarria izango da. Era berean, kongestio pelbikoa ekiditeko, erlazio sexual osoak izatea izango da onena.

Azken batean prostata beste edozein glandula modukoa da eta hipertrofiatu egin daiteke. Hori zaintzea komeni da eta prostata minbizia denboraz detektatzeko komenigarria izaten da, 50 urtetik aurrera, odol analisia egiterakoan PSA, "antigeno específico prostático" deritzan proba eskatzea. **B**

■ bergarako gordailutik

## BERGARA OSPETSUA

Imanol Sorondo

**Z**er esan nahi du "Bergara" hitzak edo izenak? Ez datoz bat adituak, tartean Justo Garate eta Caro Baroja. Dena dela, 1050. urtean dago artxibategietan lehendabizikoz idatzia; horrela ipinita, zenbaki hauek zaletasun gehiegirik sortzen ez badigute ere, esan dezagun Gipuzkoa osoan hermita gutxi daudela hain urte zaharretan izendatutakoak. Ez dakigu nolako zabalera izango zuen, baina bere mugen barrenean trikuharri piloa ikusita, Elosu eta Pol-Pol aldera batez ere, lehen esandako urte zaharrek oso gazte gelditzen zaizkigu.



Bergara 1268an egin zen herri bildua, kaleekin eta harresiz inguratuta, baina jakina da lehendik bazela herria, nahiz eta harresien barrenean ez egon.

Begarako hamarriak dauzkan giltza gurutzatuak San Pedro elizatik hartu ditu; izarra eta igitai ilargia Zabalak etxetik; eta mahaia eta hiru makilak, berriz, Ozaetakotik.

Donostiara joanik, badugu Bergara karrika eta zergatik eta abar begiratu gabe, Madrilen ere bai Bergara Printzearena, luze, zabal eta ederra; hala ere, gehien harritu ninduen zera izan zen: Madrilen bertan beste Bergara kale bat aurkitzea, toki berezian, Opera jauregiaren ezkerreko aldean Oriente enparantzara garatzen zena.

Abizena ere badago, eta Iralatar Domingo Martinezi "Bergara kapitaina" deitzen omen zioten. **B**




El Correo

## Organu eta organujole bikainak

**Donostiako Musika Hamabostaldian** organu erromantikoko ikastaroa ematen izan zen **Lloic Mallie** frantziarra Bergarara hurbildu zen aurreko martitzenean, **San Pedroko organua** ezagutzeko asmoz. San Pedroko organua (1889 urtekoa) Stoltz marka frantsesekoa da eta han tamainu horretako organu gutxi ezagutzen dira gaur egun. Mallie Pariseko Kontserbatorio Nazionaleko organu inprobisazioko katedratikoa dugu eta joan zen astean ordu eta laurden batez aritu zen San Pedroko organua jotzen. Organuaren kalitatearekin liluraturik, "tres magnifique" esaldia errepikatzen zuen behin eta berriz.

## Auzoetako jaiak oporrak agurtzeko

Abuztuko opor aurretik **Santiagoak Basalgon**, abuztuaren 24an **San Bartolome eguna Zabaletamendin** eta, joan zen as-  
tebukaeran, **Uberan eta Osintxun** ere ospakizunak izan genituen. Osintxuarek ohizko programari eutsi zioten eta horren leku-



ko eguakitzean Soralu-  
luzera egindako bizikleta martxa izan zen. Txekorraren hiltzeak eta domekako salda banatzeak ez zuten hutsik egin, nahiz eta aurten, beharbada, beste batzuetan baino jende gutxiago ibili gauez. Bestalde, domekan, **San Matei eguna ospatu zen Uberan**, bertara jende dexente hurbildu zelarik. Eguerdiko 12etan meza izan zen eta auzokoek herri bazkaria egin zuten ondoren. Bazkarian 50 bat lagun bildu ziren eta, honelakoetan ohi denez, umorea eta giro ona izan ziren nagusi.

## La Platako Euskal Etxean

Begararrak munduan zehar ibili dira aurtengo oporretan. Esate baterako, **Nora Palmitanok eta Xabier Azkarak** Argentinara jo zuten eta **La Platako Euskal Etxean Bixente Ibarguren** bergararrarekin elkartu ziren. Bixentek (Zaldumendi baserrikoa jaiotzez) urte pila bat darama Argentinan eta duela urte batzuk La Platako Euskal Etxeko presidente izan genuen. Norak, berriz, kontrako bidea egin du, La Pla-



tatik Bergarara etorri baitzen bizitzera. Lagunartean, afari ederra eta solaslaldi luzea izate-

ko aukera izan zuten, hango eta hemengo kontuei buruz berba eginez. Argazkian, atzealdean Nora, Bixente, Xabier eta honen alboan Marucha, Bixenteren emaztea. Hurrengora arte!!

# Loramendi kirolak

## %30

- Kirol jantziak
- Prakak
- Sudaderak
- Nikiak eta abar

# BEHERAPENAK!

## Zapatilak

## %20-50

San Andresen eta Garibain.

ARRASATE



## IPINTZA institutua

### DBH kurtso hasierako aurkezpena

IRAILAREN 11N IZANGO DA

DBH 1. maila: goizeko 10ean.

DBH 2. maila: goizeko 10:15ean.

DBH 3. maila: goizeko 10:30ean.

DBH 4. maila: goizeko 10:45ean.

### Batxilergorako matrikulatzeko epea

irailaren 8tik 11ra bitartean, 9:00etatik 13:30era.

Ipintza institutua: Boni Laskurain 19. Tf: 943 76 31 42/43


1998/99 ikasturtea



Martin Garitano, Euskadi Informacion-eko zuzendaria

# “Gabonzahar egunerako izango da egunkari berria”

**Joan zen uztailaren 15ean Garzon epaileak Egin ixteko agindua eman zuenetik, Euskadi Informacion egunkaria Eginzaleen erreferentzia bihurtu da. Bertako zuzendaria Martin Garitano bergarar kazetaria dugu. Eginen semea izango den egunkari berria Gabonetarako kioskoetan izango dela adierazi digu Garitanok.**



**H**ilabete eta erdi igaro da Egin itxi zutenetik. Hasiera batean egindako balorazioa eta gaur egungoa berdina da?

**E.** Bai. Uste dugu Egin ixtea astakeria bat izan dela. Ikusten dugu hilabete eta erdi honetan argitu egin dela kontua apurtxo bat; badakigu nora iritsi nahi zuten eta noraino iritsi diren. Egin itxi ondoren zergatia esplikatu beharra zeukaten eta, horretarako, zuzendaria atxilotu dute: bi komunikabide itxi dituzte eta, horrez gain kazetari bat eta zortzi direktibo espetxeratu dituzte. Hori zen helburua eta hori egin dute. Adierazpen askatasunaren aurkako eraso oso argi eta lotsagarria izan da.

**G.** Zein izan da, zure ustez, Egin ixteko arrazoiak?

**E.** Nik uste dut PPK, espainiar gobernuak, euskal abertzaleen aurkako bere kanpainan, hainbat pau-

so eman behar zituela; eman zuen Herri Batasunaren kasuan, pauso oso latza eta grabea gainera. Oraingo honetan aurrepausu larriagoa eta akaso latzagoa eman dute eta bide honetatik jarraituko dutela uste dut, bi komunikabide ixetarekin Mayor Orejak hori erakutsi du behintzat. Arazoa ez da judiziala, Garzon PPre instrumentua baino ez delako. Oso garbi dago euskara, abertzaleen arteko lana eta independentziaren aldeko aldarrikapenak direla euren etsaiak.

**G.** Zer deritzozu gizartean sortu den erreakzioari?

**E.** Euskal gizartean sortu den amorrua nabaria da eta gu oso harro gaude horrekin. Alde batetik, gure irakurle zirenak haserretu egin direlako eta oso erantzun positiboa eman digutelako. Gure irakurle ez zirenen artean ere kezka handia sortu da, batez ere alder-

di progresista, abertzale edo demokratentean. Era guztietako erantzunak jaso ditugu baina batzuk espero genuen baino positiboagoak. Guk uste dugu hainbat jende konturatu dela ez dela Eginen edo ezker abertzalearen kontrako erasoaldi bat, baizik eta abertzaleen aurkako eraso bat dagoela azpian. Estatu mailan badakigu orain urte batzuk mundu progresistak indar handiagoa zeukala gaur baino.

Dena den, Euskal Herrian adibidez, Euskadi Informacionek lehen Eginek saltzen zuen baino gehiago saltzen du eta hori guretzako oso garrantzitsua da. Horrek erakusten digu gizartean gure hitza ezagutzeko egarria dagoela.

**G.** Beste komunikabideen zuekiko jarrera zelakoa izan da?

**E.** Komunikabide enpresen aldetik erantzun positiboa izan dugu; Euskal Herriko komunikabideen artean eran-

tzun positiboa izan dugu. Madrileko komunikabideen erantzuna oso txarra izan da, gure ustez partaide izan dira operazio honetan eta zenbaitzuk etorkizunean edo historiaren aurrean oso erantzun latza eman behar izango dute. Madrileko komunikabideak parte dira, ez Eginen aurkako erasoaldi honetan, abertzaletasunaren aurkako operazioan murgilduta direlako baizik. Azkenean ez da bakarrik ezker abertzalea edo Egin, Mayor Oreja eta Aznarren asmoa askoz ere anbiziosoagoa da.

**G.** Itxiera eguna eta ondorengoak nolakoak izan ziren?

**E.** Egunkariaren ixtea erabat ezustekoa izan zen. Alde batetik, "shock" bat izan zen, beldurak ere bageunden; atxiloketak zirela eta, inork ez zekien noraino iritsiko ote ziren; oso egun go-

gorrak izan ziren, izan ere, lehen momentutik erabaki genuen hurrengo egunean beste egunkari bat kaleratzea eta ez geneukan ezer, ezta biltzeko lokal bat ere. Langileen erantzuna txalogarria izan zen eta martxan jarri ginen. Arratsaldeko 4etan bildu ginen berriz

***"PPk aurrera darrai euskal abertzaletasunaren aurkako kanpainen. Eus-kara, abertzaleen arteko lana eta independentziaren aldeko aldarrikapenak dira bere etsaiak"***

zer aukera zegoen jakiteko eta lehen-dik legalizatua zegoen Euskadi Informacion izena lortu genuen. Kanpoan hemengo berriak zabaltzeko 88an sortutako boletina zen Euskadi Informacion. Alfonso Sastre zen presidentea eta ni neu zuzendaria. Alfonsori deitu genion bere ardurapean izena uzteko eta harekin ez dago inolako eragozpenik horrelako egoera gogor baten aurrean, oso gizon ausarta da, ezkertiarra eta progresista, koherentea behintzat. Azkeneko 8 orrialde egin genituen eta goizeko 4etan topatu genuen non inprimatu.

Emozioz jositako egunak izan ziren, hartu genituen solidaridade mezuak, jendearen erantzunagatik... Nik uste dut lehen lau edo bost egun haiek ez direla ahaztekoak, norberaren bizitzan horrelako egun asko ez direlako izaten. Gogorrak izan arren, egun politak izan ziren.

**G.** Gaur egun prozesu judiziala zela dago?

**E.** Oso pauso gutxi eman dituzte orain arte. Uste dugu sekretupean jarraitzen duela sumarioak eta horrek, nolabait, oso indefensio latzean uzten gaitu, izan ere, gure abokatuek ez dakite zer dagoen eta hori ez badakizu ezin duzu defentsa estrategia prestatu. Gure ustez arazoa zera da: honek globo handi bat puztu duela, badakite barruan airea besterik ez dagoela, baina, era berean, badakigu ezin dutela globoa babatean zulatu. Mantendu nahi izango dute ahal duten neurrian hilabete batzuetan kontua dantzan. Bien bitartean, gure lankideen askatasuna bahituta dago.

**G.** Langileoi langabeziaren diru-laguntza ukatu egin zaizue. Zein da uen honetan egoera?

**E.** Gure ustez, hau gainerako zigorra izan da. Lehenbizi egunkaria ixtea eta jendea lanposturik gabe uztea jasan behar izan genuen, ondoren, atxiloketak eta horrek sortzen duen ikara. Eta hirugarren fasea eta ziztrinena, paroa bera ere ukatzea. Eginen 250 langile inguru baldin baginen, kazetarioi, Oraineko langileoi ukatu digute langabezia kobratzea. Neurri sadiko bat ematen du. Gure ustez, honekin egunkari berria, proiektu berria oztopatu nahi izan dute.

**G.** Proiektu berria martxan jartzeko "Hitz egin" plataforma sortu zen, 1.000



Martin Garitanok 15 urte eman ditu Eginen lanean, egunkariko sail ezberdinetan jardun duelarik. Joan zen uztailaren 15eko itxieraren aurretik, Eginere erredaktore-buruetakoa bat genuen bergararra.



milioi biltzeko asmoz. Zein erantzun jasoz duzue orain arte?

**E.** Oraindik ez gara hasi dirua jasotzen, jendeak eskatu barik eman duena jasoz dugu bakarrik. Azken hilabetea diseinu enpresarial bat egiten eman dugu, diru horrek inolako eragozpenik izan ez dezan: Garzonen tesia ezagutu-ta, guk erabiltzen dugun dirua oso garbia izan behar da, izan eta erakutsi. Orain arteko erantzuna ikusita ez dugu uste arazorik izango denik 1.000 milioi horiek lortzeko.

**G.** Egunkari berria noiz izango da kalean?

**E.** Gabonzaharretarako atera nahi dugu. Izenik ez daukagu oraindik bai-

***“Guztiok nahi izaten dugu gure semea gu baino azkarragoa, guapoagoa, prestatuagoa eta zabala-goa izatea. Ez dugu egingo lehengoa baino proiektu txikiagorik”***

na egunkari berria Eginen semea izango da. Guztiok nahi izaten dugu gure semea gu baino azkarragoa, guapoagoa, prestatuagoa, zabalagoa izatea eta

horrela izango da egunkari berria. Aita baino dotoreagoa, hobea. Ez dugu egingo lehengoa baino proiektu txikiagorik. Dagoeneko talde batek dihardu diseinu lanetan eta zorigaitzetik bertute egin behar baldin bada, aprobetxatu egingo dugu gauza modernoago bat egiteko XXI. mendeari begira, gaurko teknologia berriak aprobetxatuz. Informatikarekin lana asko errazten da gaur egun eta jendea, lantoki batean konzentratu beharrean, banandu egingo dugu lanerako, toki guztietan indarrez egoteko. Errotatiba ere ez dakigu non kokatuko den.

Bestalde, gure proiektua ez da bakarrik egunkari bat egitea, proiektu komunikatibo oso bat egingo dugu. Interneteko garaian gaude (edonor iritsi daiteke oso bitarteko errazekin), irratia ere ez dugu baztertzen (momentu honetan lizentzien kontuekin zaila baldin bada-goa ere), telebista ere ez dugu erabat ahaztuta... Garzonek eta Mayor Orejak kikildu egingo ginela uste bazuten, kontrako efektua lortu dute.

**G.** Egineko goi-burua ez da berriz kalean izango, beraz.

**E.** Egineko goi-burua hiltzat eman behar dugu. Oso goi-burua maitagarria izan da. Garzonek eta Mayor Orejak hil egin dute Egin eta gure betebeharra Eginen semea aurrera atera eta Egini ohore guztiak egitea da. Lanean jardun behar dugu, gure lehen eguneko erabakiari eutsiaz, “Egin egingo dugu”. Egunkari berria aterako dugu. **B**



## Hizkuntza Eskola Ofiziala

Otaola etorbidea, 29 EIBAR Tf. 943 20 06 48

Aurten **“MAILAKATZE-AZTERKETAK”** egingo ditugu bai frantsesean, bai ingelesean eta bai euskarari Hizkuntza Eskolako inolako kurtsorik gaindituta izan gabe, ezagupenak dituzten eta Eskolan sartzeko interesatuta daudenentzat zuzenduta izango direnak.

Proba hauen datak honako hauek izango dira:

**FRANTSESA:**  
asteartea, irailak 15, 11:00etan.

**INGELESA:**  
asteazkena, irailak 16, 12:30etan.


**EUSKARA:**  
osteguna, irailak 17, 13:00ean.

**Azterketa hauek egin nahi dituztenek eskolara deitu beharko dute aldezturik beren izen-deiturak, N.A.N., eta abar... emateko.**

# Kizkur



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



# Miguel ALTUNA institutua

## 1998/99 ikasturterako IRAILEKO MATRIKULAZIOAK

### H.S.A.O.L. Batxilergo

#### teknologikoa

**Epea:**

**Irailaren 7tik 11ra**

**Goizeko 9:30etik 12:30era.**

### Erdi mailako

#### ziklo formatiboak

• Administrazio kudeaketa

• Mekanizazioa

**Epea:**

**Irailaren 7tik 11ra**

**Goizeko 9:30etatik**

**12:30era.**

### Goi mailako ziklo

#### formatiboak

• Administrazio eta finantzak

• Erregulazio eta Kontrol  
Sistema Automatikoak

• Mekanizazio bidezko  
produkzioa

• Proiektu mekanikoen  
garapena

**Epea:**

**Irailaren 18tik 21era**

**Goizeko 9:30etatik**

**12:30era.**

### **HELBIDEA:**

*Miguel Altuna Institutua*

*Ibargarai 1*

*Tf. 943 76 24 91 / 943 76 38 40*

*Norberaren gaitasun eta nahien arabera  
egokitutako ibilbideak*

*Behar diren baliabideekin*

*Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen  
ikasketak*

*Eskola publikoa: integratzailea eta anitza*

***Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure  
eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu***

# Bildurbarek, Potzu Ta Zapaburuak eta Baleike txapelaldun Ipintzan

Urtero bezala, Ipintzako futbol txapelketak arrakasta handia izan zuen Bergarako gazteen artean. Guztira, 29 taldek hartu zuten parte; mutiletan, 22 talde izan ziren; nesketan, berriz, zazpi. Txapelketa ekaineko lehen egunetan hasi eta bi hilabete inguruan partiduak jokatu ondoren, finalak uztailaren 22 eta 24an izan ziren.

Mutiletan, Bildurbarek Opel/Lam izan zen txapelaldun, finalean Mongatxurrak taldeari 2-1 irabazi ondoren. Golegile onenaren saria, Juan Luis Etxaniz (Bilduran-

bek Opel/Lam) aurrelariak eskuratu zuen eta atezain onenarena, Lauri Askargortak (Mongatxurrak). Jokalari beteranoentzat ere izan zen saririk, Dunixi Olabarriri (Ezinleike) eman zioten.

Nesken kadete mailako finalean, uztailaren 22an jokatu zena, Baleike taldeak 5-1 eko emaitzarekin gaititu zuen Azkenak. Golegilerik onena, Rachel Olabarriri (Baleike) izan zen. Nesken maila nagusian, berriz, Potzu Ta Zapaburuak taldeak 1-0 irabazi zion Gamma Rai taldeari. Jokalari onenaren saria Eva Alzasek (Biko) eskuratu zuen eta atezain onenarena, Izar Mendikutek (Gamma Rai). B



Bildurbarek Opel/Lam eta Mongatxurrak.

## Labegaraieta ia-ia prest

Irailaren 19an, San Martin jaien osteko lehen astebukaeran, hasiko da Labegaraietako Futbito Txapelketako 98-99 denboraldia. Izena emateko azken eguna atzo, eguna, zen eta taldeetako ordezkarien arteko bilera egitekoa zen Kultur Etxean. Ez dakigu zenbat taldek eman duten izena, baina Pedro Ricok, Lagunak elkarteak presidentek Berrigarari esan dionez, aurten ere lau multzo eratu dira: "lehenengoan txapelketako talderik indartsuenak arituko dira eta beste hirurak zozketa bitartez eratu dira. Hiru hauetan lehen fasea jokatu eta gero, ondoen sailkatzen direnen artean berriz ere multzoak eratu dira, lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak sortuz". Gogoratu dezagun, txapelketan aritzeko kuota ordaindu ez duten taldeek 21.000 PTA sartu behar dituztela Lagunak Areto Futbol Elkarteak Euskadiko Kutxan duen kontu korrontean.

Bestalde, aurten ez da nagusien talde federaturik sortuko, baina jubenil mailakoa eta neskena izango dira. Hauek Gipuzkoako beste herrietako taldeen aurka arituko dira. B




Potzu Ta Zapaburuak eta Gamma Rai.



Baleike eta Azkenak.

**Carlos Arnaiz, BKEko presidente berria**

# **“BKEren egoera ekonomikoa larria da une honetan”**



Carlos Arnaizek duela bi urte utzi zion Erregional mailan epaile lanak egiteari.

**Carlos Arnaizek, sei urtez Erregional mailan epaile lanetan ibilitakoa, hartuko du Iñigo Zaitegi presidente ohiaren erreleboa BKEn. Uztailean hasi zen presidente lanetan eta bere helburu nagusia elkarteak duen zorra gutxitzea da.**

**G.** BKEko presidentea izatea erabaki duzu hainbat bilera eta eztabaida izan ondoren. Zer nolako egoeran aurkitu duzu elkarteak?

**E.** Zoritxarrez, oso egoera txarrean. Bergara Kirol

Elkartera une honetan, oso larri dabil. Diru galera izugarriekin egin dugu topo. Gastuen inguruan ez da kontrolik egon. Ez dakigu zertan joan den dirua. Ordainduta egon behar liratekeen gauza batzuk ordaindu gabe daudela konturatu gara. Duela hiru edo lau urteko fakturak esaterako, ordaindu gabe daude oraindik.

**G.** Zeintzuk izan dira presidente izateko erabakia hartzera bultzatu zaituzten arrazoi nagusienak?

**E.** Ez da erraza izan. Jen-

dea prest zegoen lan egiteko. Jokalari batzuen gurasoak esaterako, baina zuzendaritza horretan buru izango zen norbait falta zen. Inork ez zuen presidente izatearen ardura hartu nahi. Erresponsabilitateari beldurra zitzaiola uste dut. Gaur egun konpromisu gutxi hartzen du jendeak. Dena dela, gauza eta toki guztietan gertatzen den bezala, beharrezkoa da buru bat izatea. Ez da arrazoi bakarra izan. Futbola atsegin dut eta Bergarako jende gazteak futboleant jokatzeke gogo-

dauka. Ezin daiteke jende hori futboleant jokatu gabe utzi. Herrian futboleant jokatu behar da eta horrek jarraitu egin behar du. Bestalde, zuzendaritza osatzen duen taldea atsegin dut eta horrek ere eragina izan du.

**G.** Nortzuk osatzen du zue zuzendaritza berria?

**E.** Zuzendaritza batzordean, Emilio Uzin, Julio Mendiarez, Alfredo Najera, Balentin Muguruza, Jose Migel Lete, Aitor Lazpiur eta ni neu gaude. Bestalde, bospasei lagunekoko laguntzaile talde bat ere badago.

**G.** Zer nolako harremanak izango dira elkarteko beste kirol sailekin?

**E.** Aipatutakoak, futbol zuzendaritzakoak dira. Gai nontzeko kirolak autonomia osoz arituko dira. Bakoitzak bere arduradunak ditu eta gauzek horrela jarraituko dute. Ni, futbol presidentea naiz. Futbolearen arituko naiz eta nire lana futbolera zuzendurik egongo da. Gai nontzeko kiroletako arduradunek ez dute ni presidente izateko inongo irizirik eman. Harremanak

## "Nire lana futbolera zuzendurik egongo da, ez dut beste kiroletan agintzeko asmorik"

izan dira eta jarraituko dutelakoan nago, baina, nik ez dut eskubaloian agindu behar, eta berdin gertatuko da saskibaloi eta pilota sailetan.

**G.** Aldaketarik igarriko ditugu BKEn?

**E.** Ez dakit, baina zuzendaritzako kide bakoitzak egin behar zehatzak izango ditu. Batek, zelaiaren ardura izango du, beste batek, jo-

kalari eta zuzendaritzaren arteko harremanetan bitartekari lanak egingo ditu, beste batek diru kontuak eramango ditu... Bestalde, zuzendaritzako kide bakoitzak ardura ezberdinetan arituko diren kolaboratzaileak bilatu beharko ditu. Ez dira aldaketa haundiak izango. Elkartearen barne egitura guztiz ahulduta eta utzita zegoen eta horrela, gauzak hobetuko direla espero dut. Urte askoan, elkartearekin zerikusirik ez zuten jendeak bertako giltzak izaten jarraitzen zuten eta hori, esaterako, ezin daiteke onartu. Hau da ekidin nahi dudana. Ardurak banatzen badira, norberak bilatu beharko ditu horiek betetzeko bideak eta horrek kontrol bat izango du. Bestalde, publizitatea eta bazkideak lortzeko kanpainak martxan ipiniko ditugu diru sarrera berriak lortzeko.

**G.** Bergarako harrobia bultzatzearen aldekoa edo kanpoko jokalariek ekartzearen aldekoa?

**E.** Zuzendaritza honek irauten duen bitartean, etxeko jokalariek izango dira taldean. Mailaz igo edo jeisteari ez diot horrenbesteko garrantzirik ematen. Beste arrazoi batzuen artean, Bergarako futbol taldeak dituen zorrak kanpoko jendea ekartzeagaitik sortu dira. Une honetan badira kanpokoak diren jokalariek, baina urte asko daramate eta kasu hori ezberdina da. **B**

## Etxaniz eta Zezeaga, Alti laga eta Aspera



Alti enpresarekin hiru urte egin ondoren, Jokin Etxaniz eta Jose Mari Zezeagak Aspe enpresarekin fitxatu berri dute. Duela hiru urte, Asegarcerekin hasi baino lehenago enpresa berri bat sortzeko asmoa izan zen. Hori ezinezkoa izan zen garai hartan eta, beraz, Jokin Etxanizek adierazi duen moduan, "ia behartuta joan ginen Alti enpresara, ez baitzegoen beste aukerarik. Enpresa bakar bat izatea ez zen irteera hoberena pilotariontzat, monopolioa nagusitzen baita, baina ez genuen beste erremediorik izan. Une hartan Aspe enpresa bazegoen baina ez zen pilotari profesionalekin aritzen. Bigarren mailako txapelketak jokatzen ziren. Bertan, profesional izandako jokalariek, Asegarcetik irtendakoak aritzen ziren".

Asperen arduradunek, enpresa profesionala sortzeko go-go erakutsi zutenean, Asegarce eta Altin jokatzen ari ziren pilotari batzuek, enpresaz aldatzeko erabakia hartu zuten eta horrela aurrera egin du Aspek. Asegarce edo Altitik Aspera pasatu direnen artean, Elkoro, Titin, Lasa, Capellan eta Eugi daude. Etxanizek eta Zezeagak abuztuan Alti enpresarekin kontratua amaituz bat sinatu zuten Asperekin. "Honek guztiak pilota indartuko duela uste dut. Pilotariontzat, esaterako, oso komenigarria da. Ikusleentzat, berriz, ez da hain ideia ona izan, oker ikusi dute bi enpresa izatea eta horrek beldur piskat eman zidan hasieran. Gure baldintzak hobetu egin dira, bai ekonomikoki eta bai tratuari dagokionez. Horrek ez du esan nahi gaizki tratatzen gintuztenik baina orain gustorago gaude". Ondorioz, Etxaniz eta Zezeagak Errioxan jokatuko dituzte partidu gehienak eta bergararrok, zaila izango dugu Bergarako bi pilotariak etxean jokatzen ikusteko. **B**



Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUIA KIROLAK**

## IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

## Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Erreformatzeko dagoen etxea salgai Barrenka-lean. 943 76 29 10.

Barrenkalean aparta-mentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. Deitu 943 76 49 74 telefonora.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Pisua salgai Martokon. la amueblatuta. 943 76 34 20/37 99.

Apartamentua salgai Donostian (Egia). Deitu 943 43 11 00 telefonora.

**Errentan emateko**

Apartamentua Laredon, hondartzatik gertu. 943 79 52 80.

Estudioa Benidorm-en. Deitu 943 76 23 43 teelfonora.

Benidorm. Hondartzatik gertu. 943 74 20 31.

Apartamentua Jacan. 943 76 56 31 (gauzez).

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/  
MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m<sup>2</sup>. 943 76 11 89.

Lokala salgai A. Fleming-en. 943 76 00 84 / 76 35 83.

Bi solairuko txabola salgai. Ortuarekin, prezio interesgarria. 943 76 07 87.

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egintza nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zain-tzen ditu. 943 76 64 47.

Haurrak zainduko nituzke. 943 76 01 84.

Etxeko lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

Neska eskaintzen da atariak edo etxeko gar-

**Errentan hartzeko**

Urritik aurrera pisua alokatuko genuke. 945 45 52 09 (Vanessa).

Familia batek etxea hartuko luke alokairuan. 943 76 26 82.

Pisua alokatu nahi du-gu. 943 76 21 48 (Felix).

Pisua alokatu nahi dut. Urjentea. 943 76 72 45 (Carmen).

Pisua konpartituko nu-ke. 943 88 24 60 (Mikel).

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 30 57.

Pisua hartuko nuke. 943 76 32 57 (David)

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Mastere-rekan. 943 7627 71.

Garajea salgai Burdiña-ten. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterrekan salgai. 943 76 24 57.

Garajea salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garajea salgai Bolun. 943 76 51 54.

Garaje bikoitza S. Lo-rentzon. 943 76 58 00.

Garajea salgai San An-tonion. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

**Errentan emateko**

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Po-ligonoan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ma-txiategin. 943 76 22 09.

**Errentan hartzeko**

Garajea/ganbara aloka-tuko genuke. 943 765000.

## LA PUERTA AL INGLES, S. L. 98-99 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK

**INGELES  
nahiz  
ALEMANA**

- Maila guztiak
- 4-6 urtekoentzako hasierako taldeak, astean bi ordu
- Azterketetarako prestakuntza
- Enpresentzako klaseak
- Banakako klaseak

**Kurtso hasiera irailaren 17an**

**INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01**



bitzeko. 919 52 98 04.

Neska euskaldun batek egunean ordu batzue-tan lan egingo luke. 943 76 23 41 (Itxaso).

Arratsaldeetan haurrak zaindiko nituzke. Espe-nientzia. 943 76 03 76 (Maite).

Neska batek zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 09 33.

**Eskaerak**

Antzulan pertsona bat behar da umeak zain-tzeko irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Pertsona behar da ume bat zaintzeko irailetik aurrera. 943 76 08 47.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 943 76 01 21.

Umeak zaintzeko neska behar da. 943 76 57 81.

Umeak zaindu eta etxe-ko lanetarako neska bat behar da. 943 76 31 11.

Ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Deitu 943 76 19 27 telefonora.

**5. IRAKASKUNTZA**

**Eskaintzak**

Ingeles klaseak ematen ditut. Deitu 943 76 53 88 zenbakira (Rosa).

Frantseseko klaseak ematen ditut. 943 76 39 68.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

Enpresaritzako klaseak. 943 76 05 43.

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Mate, fisika eta infor-matika klaseak ematen dira. 943 76 46 03.

Majisteritzan diploma-tuak kalseak ematen di-tu. 943 76 10 17 (Rosa).

**6. AUTOAK/MOTOAK**

**Saldu**

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

Suzuki motorra salgai. 943 76 00 90.

Kotxea (SS-V) salgai. 943 76 36 74 (Jabier).

**7. ANIMALIAK**

**Saldu**

Cooker ingeles txaku-rrak. 943 76 72 45.

**Bestelakoak**

Katuak oparitzen ditut, 2 hilabetekoak. 943 76 57 67.

**8. DENETARIK**

**Saldu**

Mendiko bizikleta, Ca-

llo, 16 neurrikoa. 40.000 pezeta. 943 78 70 58.

Pianoa salgai. 943 76 51 54.

Bainurako manpara, 1,55 m. 943 76 64 65.

Master Sistem 2 bideo jokoak salgai. 12.000 pezeta. 943 76 06 96.

Razesa errepiderako bizikleta. 58 neurrikoa. 943 76 31 10.

MTB Hook mendiko bi-zikleta berria salgai. 28.000. 943 76 13 33.

Donostian (Amaran) 2 lagun behar ditugu pi-sua konpartitzeko. Deitu 943 79 27 42 telefonora.

Aspes garbigailua sal-gai. Berri-berria. 40.000 pezeta. 943 76 11 11.

Pioneer musika ekipoa salgai. CD eta bozgorai-luekin. 919 41 44 41.

Errepideko bizikleta sal-gai. 943 76 00 56.

**Galdu**

Uztailean erloju bat gal-du nuen Martoko-Gabi-ria tartean. 943 77 91 16 (goizez).



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**4 INDUSTRI GARBITZAILE**  
Araba. 11861/5

**KONTABILITATE GESTOREA**  
Araba. 12066/2

**6 SOLDATZAILE**  
Bilboko eskuin alde. 12036/1

**MEKANIKARIA**  
Gernika. 12061/1

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**IKUSBI**

**ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK**

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

**PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

**FRANTSES IRAKASKUNTZA**

**98-99 ikasturtea**

Izena emateko epea: urriaren 2ra arte.



**Informazio gehiago:**

Mizpildi, 3 1. ezkerre. BERGARA.  
Tf. 943 76 30 55  
Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35



*Gozogintzan aintzindari.*

# Lexiko bereziari buruzko bigarren atala kalean

“Txondorrak. Karobiak. Elurzuloak” liburua aurkeztuko da irailaren 15ean

**Irailaren 15ean, San Martin bezperan, aurkeztuko da Udaletxeko Pleno Aretuan arratsaldeko 19:30etan “Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak” izenburuko bildumaren bigarren atala.**

Iaz argitaratu zen “Ehuna, liñua eta artilea” izenekoaren ondoren, “Txondorrak. Karobiak. Elurzuloak” aurkeztuko da oraingoan. Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiola irakasleak dira liburua-  
ren egileak eta Bergara eta inguruko lekukoei egindako elkarrizketez baliatu dira lanerako.

Liburuak 252 orrialde ditu eta hiru atal nagusi, langintza bakoitzari buruzkoak. Bestalde, gai bakoitzari buruzko sarrera historikoa, langintza bakoitzaren teknika ezberdinak, eskualdean teknika hauek landu izan dituztenei egindako elkarrizketen transkribaketa eta hiztegia jasotzen dira. Testua gai-  
ei buruzko koloretako eta zuri-beltzeko



San Martinetan aurkeztuko den liburua-  
ren azala.

argazkiekin lagunduta dator. Liburua San Martin jaietan kalean salgai izango da 1.500 pezetan eta, ondoren, liburu-

dendetan eta Kultur Etxean ere eskuratu ahal izango da.

## “Kea basoan” bideoa

Liburuaren aurkezpen ekitaldian, Oartzun Bailarako Izadi Elkartek (OBIE) egindako “Kea basoan” izeneko bideoa ikusi ahal izango da. Bideoa Lekeitioko bideo jaialdian sarituta-  
koa da.

“Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak” bilduma osatuko duten beste bi liburuak, “Zura. Arotzak eta etxegileak” Anaje Narbaizarena eta “Burdina. Errementariak eta perratzaileak” Iñaki Aranek eta Lide Oregik egindakoa, datorren urtean aurkeztuko dira. Lau liburuak Bergarako Udalak eta UNEDeko Euskal Kultur Departamenduak lexiko berezia jasotzeko 1993an egindako hitzarmenaren bitartez gauzatu dira. Egitasmoaren koordinatzailea Juan Martin Elexpuru da. B

## Ainhoa Agirreazaldegi Bertsolari Gazteentzako Lizardi sariaren finalean

**Ainhoa** Agirreazaldegi zapatuan Zarautzeko Zinema kiroldegian jokatu-  
ko den Bertsolari Gazteentzako XXII. Lizardi Sariaren finale-  
ra heldu da. 15 bikote aurkeztu dira eta joan zen eguakitzean jokatu zen lehen kanporaketa. Zapatuko finalean zortzi bertsolari arituko dira le-  
hian. Irabazleak

35.000 pezeta jasoko ditu eta bigarrenak 25.000 peze-  
ta. Ainhoa Agirreazaldegik 1995. urtean irabazi zuen Lizardi saria eta ilusio haundiz agertu da zapatuko emanaldiaren aurrean: “aurten maila polita dagoela uste dut eta denak antzera samar gabiltza, ez dago faborito nagusirik” esan digu. B

## “Bernar” bideo laburra Elche Hiria Zine eta Bideo jaialdian saritua

**“Bernar”**, Xabier Alberdi, Jon Andueza eta Aitor Agorriaren bideo laburrak lehen saria jaso du Elche Hiria Zine eta Bideo Jaialdian. Bideo saileko laburmetrairik onena aukeratu du epaimahaiak eta 150.000 pezeta-  
ko saria jaso du.

Nazioarte mailako jaialdia estatuko garrantzitsue-

netakoa da. Abuztuko lehen astebukaeran egin zen eta bertan, 200etik gora lan aurkeztu ziren. “Bernar”, Alberdi, Andueza eta Agorriaren bigarren laburra da eta Bergaran joan den uztailean ikusi ahal izan genuen Gartzela Zaharrean. Miren Gोजenola eta Gorka Zufiaurre dira protagonistak. B

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34

**Z**umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

**Usoa Pub**

☎ 943 76 38 57  
Irala 1

kronika

## Koldo Eleizalde gogoratuz

Sabino Arana Fundazioak bergararra omendu zuen

**Sabino Arana Fundazioak eta Bergarako Udalak Koldo Eleizalde (1878-1923) bergararra omendu zuten uztailaren 27an Bergaran.**

Omenaldian "Luis de Eleizalde. Un vasco polifacético" liburua aurkeztu zen. Koldo Eleizalde aranismo osteko euskal abertzaletasunaren ideologo nagusia eta Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sortzaile garrantzitsuenetakoa izan zen. Joan zen uztailaren 24an bete ziren 75 urte Bilbon hil zela.

"Luis de Eleizalde. Un vasco polifacético" liburuak 356 orrialde ditu eta bi zati nagusitan banatuta dago. Lehenengoan, Esteban Antxustegi EHUKo irakasleak egindako Koldo Eleizalderen biografiari buruzko ikerketa jasotzen da eta, bigarren zatian, Luis de Gezalak

aukeratutako Koldo Eleizalderen 20 artikulu esanguratsuenak biltzen dira.

Udaletxeko Pleno Aretoan izan zen aurkezpen ekitaldian, Esteban Antxustegirekin batera, Anton Aurre Sabino Arana Fundazioko presidentea, Victoriano Gallastegi alkatea eta Carlos Bastero Eleizalde, gipuzkoar intelektuala- ren iloba ere izan ziren. "Luis de Eleizalde egindako lanetara hurbiltzea, intelektual batengana, mende honen hasieran euskal nortasuna bere hizkuntza, politika, literatura, hezkuntza eta euskalduntze alderdietan zeregin funtsezko eta erabakigarria izan zuen abertzale batengana hurbiltzea da" esan zuen Esteban Antxustegik.

Aurkezpen ekitaldiaren ostean, Koldo Eleizalderen jaiotze etxera, Goenkaleran, bisitaldia egin zen. B



Koldo Eleizalderen jaiotzetxean, honen familiar- tekoak, agintariak eta bergarar euskaltzaleari buruzko liburuaren egilea bildu ziren.

## Bergarako Orfeoia Ezkarain eta Xamatz Leonen zapatuan

Bergarako Orfeoia emanaldia eskainiko du bihar, zapatua, Ezkaraiko Santa Maria La Mayor parrokiaren Opus III Percussion Ensemble taldearekin batera. Ezkarain udan zehar antolatutako musika klasikoari buruzko zikloari amaiera emateko antolatutako kontzertuan, joan zen martxoan Miramonen, Euskadiko Orkestaren egoitzan, Bergarako Orfeoia eta Opus III perkusio taldeak eskainitako programa emango dute.

Tomas Aragues-en "Sinfonietta", Leonard Bernstein-en "West Side Story" eta hainbat zarzuela eskainiko dituzte bi taldeek. Zuzendari lanetan Jesus J. Soldevilla arituko da.

Bestalde, Bergarako Orfeoia 75. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiak hil honen 18an aurkeztuko dira Udaletxeko Pleno Aretoan, 20:00etan. Bertan, urte osorako eratu den egitarauaren aurrerapena egingo da. Horretaz gain, Orfeoia historiari buruzko azalpen laburra egingo da eta 75. urteurreneko ekitaldiak iragarriko dituen kartela, Rikardo Azkargorta pintore bergararrak egindakoa, aurkeztuko da. Ondoren, emanaldi labur bat eskainiko du Orfeoia.

Bestalde, Xamatz dantza taldeak Leongo Santa Maria del Paramo herriko dantza jaialdian parte hartuko du zapatuan. Dantza erakustaldian, Tarragona, Alcorcon eta Santa Maria del Paramoko Virgen de la Guía taldeek ere hartuko dute parte. Xamatzekoek ekainean jaso zuten Leonera joateko gonbitea eta taldeko 40 kideak, dantzari eta txistulari, abiatuko dira bertara; Berriotxo dantza eskainiko dute. B

**M**  
**MEMESA**  
INDUSTRI HORNIDURAK  
Tf. 943 71 24 25

**LASAGABASTER**  
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.  
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Xehetasun. 2. Pluralean, basapizti mota. Infusio mota. 3. Ahotza zakartzea. Röntgen. 4. Bilboko portua. Arto-irinez eginiko opila. 5. Ergela. Maiz, sarri. 6. Euskadi Ta Askatasuna. Metal-mota. 7. Listu. Juntagailua. Bizkaian, ote. 8. Euskal lurraldea. Gipuzkoako hiria. 9. Letoniako hiriburua. Jardun. Bokala. 10. Irudi-mota. Gipuzkoako herria.

**Goitik behera**

1. Portuetako langile. 2. Ezabatuta, desagerturik. 3. Lurraldea. Areagotzeko partikula. 4. Ez emeak. Bizkaian, zuen. 5. Baztango herria. Fruitua. Oxigenoa. 6. Hesola. Bokal errepikatua. 7. Agiri mota. Nitrogenoa. Iridioa. 8. Fosforoa. Aldrebeskeria. 9. Interjekzioa. Sendatu, onera etorri. Bat. 10. Ni, neu. Nirea.

**Soluzioa**

3. Etil-behu. 1. 10. Neru. Enea. 7. Alka. N. Ir. 8. P. Alukeria. 3. Zeta. Uta. 0. 6. Tanta. Aa. 3. Hema. Ago. 4. Arak. Eban. 1. Zamatari. 2. Ezabatutik. 10. Ikonoa. Ala. 9. Riga. Ari. E. 7. 10. Eta. Eta. 8. Araba. Irun. 5. Kaka. Usu. 6. ETA. Zinka. 3. Marata. R. 4. Abra. Taloa. 1. Zehaztapen. 2. Azeriak. Te. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar



**Bergarako erdialdeko zein kaletan aurkitu dezakegu ezkerreko atea eta zein etxetan eskumakoa?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Erreki** erretegiari izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Leire Ortiz de Zarate**rentzat izan da: Ostatu jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Leireri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Usono parkea** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**ERREKI**  
**ERRETEGIÀ**

Fraiskozuri 3. 943 76 38 51

**Josean Azkarate-Askasuak 11 urte daramatza Novedades zinean lanean. Ezkon-  
duta dago eta bi alaba ditu. Oporretako atsedena diaren ondoren, Novedades  
aretoak atek zabaldu ditu berriz ere.**

## Josean Azkarate

**Filmerik ikusi duzu oporretan?**

Mordo bat.

**Zinera joateko sasoirik onena?**

Negua, beharbada.

**Arratsaldeko ala gaueko saioa?**

Niri Setakoa gustatzen zait.

**Zinera, lagunduta ala bakarrik?**

Lagunduta.

**Jatorrizko bertsioa ala bikoiztua?**

Bikoiztua.

**Zinean palomita jaten duten**

**horietako zara?**

Bai. Coca-Colarekin hobe.

**Bideo-klubean filmerik**

**alokatzen duzu?**

Orain gutxiago...

**Jenero bat?**

Abenturak.

**Gustoko zuzendari bat?**

Spielberg.

**Aktore eta aktorea bana?**

Harrison Ford eta Michelle Pfeiffer.

**Eta ikusi ezin dituzunak?**

Stallone eta Sandra Bullock.

**Askotan ikusi duzun filme bat?**

"La guerra de las galaxias".

**Gustatzen ez zaizun filme mitiko bat?**

"Lo que el viento se llevo".

**Zenbat aldiz irten zara zinetik**

**filmea amaitu aurretik?**

Sekula ere ez.

**Expediente X ala X filmeak?**

Biak.

**Zergatik ez dira X filmeak  
programatzen?**

Jendeak nahiago dutelako etxean ikusi.

**Sala txikiak ala handiak?**

Handiak nahiago.

**Gustoko zine bat?**

Gasteizko Guridi.

**Novedades puntuatu.**

Otik 10era, 7 bat emango nioke. Hori bai, soinua, imajina, pantaila handiago bat..., gauzak hobetu daitezke.

**Zineari buruzko telebista saio bat?**

Felix Linares-ena, ETB-2n.

**Oporretan zer egin duzu?**

Errioxan egon gara egun batzuk.

**Oporrak, atsedena hartzeko**

**ala tokiak ezagutzeko?**

Biak egin daitezke.

**Oporretatik bueltan, asmoren bat?**

Gero betetzen ez dudanez, hobe norberaren buruari asmorik ez jartzea.

**Zenbat zigarro erretzen**

**dituzu egunean?**

Gutxi, astebukaeretan zerbait gehiago.

**Nork irabaziko du Kontxako Bandera?**

Oriok irabaziko duela uste dut.

**Lady Diri buruzko programa**

**berezirik ikusi duzu?**

Ez.



**98-99 IKASTURTEA**

**INGELES  
FRANTSESA  
ALEMANA**

**MATRIKULA ZABALIK**

**Ikasturtearen hasiera: urriaren 1ean.**

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- **UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK  
(6 URTETIK AURRERA).**
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.



**INFORMAZIOA:** Bergarako UNED. San Martin plaza z/g (3. pisua) ☎ 943 76 06 87. Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30



## Heriotz zigorra jaso zuten bergararrak

Aste honetako erretratu zaharra 1941.ekoa dugu. Azaroan Burgoseko espetxean ateratako argazkian ageri direnak, heriotz zigorra jasotako gudari bergararrak dira.

Gerra amaitu zenean Santoñako El Dueso espetxera eraman zituzten lehenengo eta Larriagara gero. Guztiak ofizialak dira. Kargu altuenekoa Lino Lazkano teniente koronela.

“Madre patriaren” aurka armetan altxatzea

leporatu eta heriotz zigorra ezarri zieten guztiari. Zorionez ez zuten inor hil. Zazpi bat urtez kartzelan (batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago) izan ondoren, aske laga zituzten. Hara nortzuk diren ezkerretik eskumara.

**Zutik:** Ramon Jauregi, Ignazio Unzeta, Markos Azkarate, Kepa Iartza eta Lino Lazkano.

**Eserita:** Luis Larrañaga, Joxe Mujika, Imanol Mujika eta Pako Gantxegi.

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!



**ALDASORO**  
**ZAPATA DENDA**

**9. urteurrena**

**DESKONTU INTERESGARRIAK**  
zapata, poltsa eta osagarrietan.

# Oraingoan bai!

## IRAILA EUSKARAZ DATOR!

### Udal Euskaltegiak



HABEren dirulaguntzaz.

#### ESKAINZA

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE  
maila guztiak, EGA.

#### ESKAINZA BEREZIA

GURASOei eta MERKATARLei  
egokitutako taldeak.

#### MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 1etik 18ra.  
16 urtetik gorakoentzat.

#### ERRITMOAK

Egunero 2 ordu (iraila-ekaina)  
Egunero 3 ordu (iraila-ekaina).  
Egunero 5 ordu (iraila-otsaila) eta  
(otsaila-ekaina).

Astean bi egunean 2 ordu eta erdi (EGA).  
Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere  
eskain daitezke. Galde ezazu!  
Bekatzte sistema eta diru laguntzak ditugu.

#### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-12:30  
Arratsaldez: 14:30-19:00.

## BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53

Posta elektronikoa: [berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)

**LOGELETAN**  
maisuak

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia. Bertako profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**